

AIARALDEA *hemen*


RAFA MUNTION:
"Baskoniarekin bidaiatzen dugunean eguneko 24 orduak ematen ditugu jokalariekin" 18 or.



ANTZERKIA:
Hainbat antzerki proiektu garatu dituzte emakumeek oholtza hartzeko 14 or.



Milaka Ahobizi eta Belarriprest atera dira armairutik



HERRIZ HERRI 2
Artzniegako CELen ekoizpen linearen etorkizuna, ezbaian
Langileak akordio batera iritsi dira enpresaren erosleekin. Hainbat behargin kaleratu dituzte eta lan baldintzak okertuko dira 2

Lanuzteak egiten jarraitzen dute Tubos Reunidosen
Lanuzteak egiten jarraitzen dute Tubos Reunidosen, enpresaren zuzendaritzak ezarri nahi diren lanpostu suntsiketaren aurka. 5

Kontzejuetako ordezkari berriak hautatu dituzte
Igandean egin ziren Arabako kontzejuetarako hauteskundeak. Tokiko instituzio horietako ordezkariak hautatu dituzte hurrengo lau urtetarako.

KULTURA 16
Auzolanean eginiko zarzuela bat taularatuko dute
Ehun lagun baino gehiago batu dira "La aventura de la Zarzuela" ikuskizuna plazaratzeko. Abenduan estreinatuko dute obra. 16

Aiaraldeak presentzia izango du Durangoko Azokan
Eskualdeko hainbat sortzaile egongo dira azokaren egitarauan. Durangora bertaratzeko eskualdetik autobusa egongo da. 17

KIROLA 14
Eskualdeko biderik erabilienak, argitara
Kirola egiteko bide erabileenen mapa ikusi daiteke Strava aplikazioaren bidez. Eskualdeko hainbat gune nabarmentzen dira.

ZURE LOTERIA ADMINISTRAZIOA LAUDIOKO HERRIGUNEAN

Karmen kalea 1, LAUDIO 94 672 00 97
www.loteriaselgordo.com info@loteriaselgordo.com

Euskarak lotzen gaitu,
elkartu, anaitu,
gertutasuna sortu,
tarteak amaitu
izan nahi dugun hura
izateko gaitu
euskaraz egiteak
hori lortzen baitu
konpartitzen dugunak
aberasten gaitu.

EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat.

herriz herri

Artziniega

Soldata jaitsierak eta kaleratzeak egongo dira CEL taldean



Mobilizazio ugari egin dituzte enpresa taldeko beharginek. ELA

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Akordioa sinatu zuten astelehenean CELeke Enpresa Batzorde gehienek Lucart talde italiarrarekin. Lucart da enpresa-taldea erosteko prest azaldu zen inbertitzaile bakarra, baina hainbat baldintza jarri zituen horretarako: langile kopurua txikitu eta lan-baldintzak okertzea.

Azken egunetan negoziazioetan murgilduak egon dira langileen ordezkariak talde italiarreko kideekin, eta modu horretan adostu dute astelehenean sinatutako akordioa. Langileen batzar orokorra egin zuten Zallan, eta behargin gehienek egin zuten bat hitzarmen horrekin: aldeko 150 boto egon ziren, aurkako 15 eta 10 zuri.

Modu horretan, lanpostuak

225 izatetik 145 izatera igaroko dira eta %9 eta %20 bitarteko jaitsierak emango dira soldate-tan. Lanpostu gehienak erretiro aurreratuen bidez suntsituko dira, baina lau "kaleratze traumatiko" egongo dira, jakinarazi dutenez. ELAk (CELen gehiengo duen sindikatuak) adierazi du akordioa ez dela ona izan, baina langileek egoniko borroka nabarmendu du. "Mobilizazio ugari egin dugu, Enkarterrin nahiz administrazioen aurrean".

Artziniegako lantegia

Gauzak hala, ezbaian dago Artziniegako lantegiaren etorkizuna, bertako ekoizpen-linea kentzea baitzen Lucarten asmoa. Hala ere, ELAko kideek adierazi dute oraindik ez dakitela nola eragingo dien akordioak herriko instalazioei.

Arakaldo

Udalbiltzako batzorde eragilerako hautatu dute Jabi Asurmendi alkatea

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Udalbiltzako batzorde eragileko kide izateko hautatu dute Jabi Asurmendi Arakaldoko alkatea. Euskal Herriko beste 12 hautetsirekin batera arituko da lan-talde horretan.

600 lagunek, 201 herrik eta 23 eskualdek parte hartu dute Udalbiltza berregituratzeko prozesuan. "Lan ildoak eta egitasmoak definitzen ari gara orain", azaldu du Asurmendik, "kide bakoitzaren ardurak banatuko ditugu ondoren". Hileroko bilduko dira horretarako.

Herriguneko argiteria berrituko dute urtea amaitu baino lehen

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Artziniegako herriguneko argiteria urtea amaitu baino lehen berrituko dute, Artziniegako Udalak jakinarazi duenez. 197 lanpara aldatuko dituzte, LED motakoak jartzeko. Modu horretan urtero 12.000 euro aurreztuko dituztela aurreikusi du tokiko erakundeak, bonbila berriek

askoz argindar gutxiago kontsumituko dutelako.

7 urtetan amortizatua

68.000 euro baliatuko dituzte obra egiteko. Iñigo Gomez alkateak adierazi du diru-laguntzak eskatuko dituztela lanak finantzatzeko, baina diru aldetik arazorik egongo ez dela ziurtatu du: "7 urteren bueltan amortizatua egongo da argiteria berria".

"Merkatu txikia" egingo dute galaktosemia duen bizilagun baten alde

Gabonetako Merkatu Txikiaren XVII. edizioa antolatu du Hiriska emakume elkarteak. Galaktosemiarako Espainiako Elkartera bideratuko dute ekimenaren bidez bildutako dirua. Izan ere, eritasun hori du Markel Rivas artziniegarrak. Abenduaren 2tik 10era egongo da azoka, La Encina egoitzako kaperan.

Konpromisoa

gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin



JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar z/g · 01400 Laudio (Araba)

Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es

Laudio

ETBko "3txulo" saioan parte hartu dute Laudio Ikastolako ikasleek



ETBko "3txulo" saioan parte hartu dute Laudio Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek. Txistek kontatu, dantzatu... makina bat gauza egin dituzte kamera aurrean.

"Bizi zaitez bizi" programa abiatuko dute, bigarrenaz

"Bizi zaitez bizi" programaren bigarren edizioa jarriko du abian Laudioko Udalak. 60 urtetik gorako bizilagunei zuzendutako egitasmoa izango da. Lehen edizioak zituen helburu berak izango ditu: "Eguneroko arazo eta korapiloak kudeatzen jakitea". Hala adierazi du Isa Bovedak. Ongizate Saileko zinegotziak jakinarazi du ekimena 18 saioz osatua egongo dela, "abendutik maiatzera bitartean egingo dira eta ordu eta erdikoa izango da bakoitza".

Programa aurkezteko hitzaldi informatiboa eskainiko dute abenduaren 4an, 18:00etan Kultura Etxean. "Aurkezpen saioa izango da, bertaratutakoei ez zaie konpromisorik eskatuko", nabarmendu du Bovedak.

Txaro Sarasua talde mistora igaro da Juanje Merchan izendatu baitute idazkari



Txaro Sarasua -eskuman- artxibo irudi batean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Laudioko Udaleko talde mistoan kokatuko da Txaro Sarasua. PSE-EEko zinegotzia izan da orain arte, baina alderdia ordezkatzeari uztea erabaki du, ez dagoelako ados herriko idazkari berria hautatzeko eman den prozesuarekin. Hala jakinarazi du prentsa-ohar baten bidez.

Azaroaren 8an afiliatuekin eginiko batzarra "iskanbilatsua" izan zela salatu du Sarasua. Bertan hautatu zuten Juanje Merchan idazkari berria izateko, "bi botoren aldearekin". 2014. urtetik darama Merchanek alderdian afiliatuta. Hirugarren postua bete zuen Laudioko zerrendan 2015eko udal-hauteskundeetan, Sarasuaren eta Loli Murielen atzetik. Idazkari berria hautatzeko bileran "ez-ohiko tentsioa" egon zela adierazi du Sarasua, "oihu eta kexa ugari egon ziren

eta boka-orriak manipulatu zirela esan zen". Bere aita erasotzen saiatu zirela gaineratu du Sarasua.

Militantziaren % 30

Zinegotziaren ustez, bera udal-letik kanporatzea zen gertatutakoaren xede bakarra, bere zinegotzi-postua idazkari berriak bete zezan. "Jarrera mafiosoetik gertuago dauden taktikak" baliatu zituzten horretarako, Sarasuaren hitzetan. PSE-EEko bozeramaile ohiak gaineratu du gatazka horrek "Laudioko afiliatuen % 30" alderditik ateratzea ekarri duela.

"Akusazio faltsuak"

Arabako PSE-EEk adierazpenak egin ditu gertatutakoaren harira hainbat komunikabideetan eta ziurtatu du eginiko akusazioak faltsuak direla. Horretaz gain, zinegotzi kargua uzteko eskatu dio Sarasuari.

Urduña

Urduñarrei irekitako gimnasioa izango du Aduanak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Orduña Gestión H72 S.L enpresari esleitu diote Aduana eraikineko bainuetxe-hotelaren kudeaketa. "OrduñaPlaza" izango da tokiaren izen berria.

Martxorako egongo da martxan eta lau izarreko kalifika-

zioa izango du zerbitzuak. Besteak beste, gimnasio bat izango du eraikinak eta hoteleko bezereok ez ezik, hiriko bizilagunek ere erabili ahal izango dute.

20 urterako esleitu du udalak hotelaren kudeaketa, baina beste bi hamarkada luzatu ahalko da epea, 5 urteko lau luzapen eginda.

"Apal morea" jarri dute udal liburutegian



40 liburu baino gehiago egongo dira apalean. Urduñako Udala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gune berria inauguratu dute Urduñako udal-liburutegian, "Apal morea" izenekoa. Feminismoari buruzko 40 liburu baino gehiago topatu ahalko dira bertan.

Urduñako Udaleko Berdin-

tasun Arloak sustatu du ekimena, "irakurketa-tresnak" eskaintzea xede hartuta, "emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko ezagutza eta jakin-minean sakontzen laguntzeko".

Bilboko Louise Michel liburutegiaren laguntza izan du udalak bilduma handitzeko.

DA!

ABENDUAREN 6tik 10era
52. DURANGOKO AZOKA

BIDAIATU SORMENAREN LURRALDERA

www.durangokoazoka.eus



herriz herri

Okondo

Aparkaleku publiko bat egingo dute Irabienen



Umeentzako parkea kenduko dute aparkalekua jartzeko. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hainbat obra egingo ditu Okondoko Udalak Irabien auzoan.

Alde batetik, umeentzako parkea kenduko du aparkaleku

publiko bat atontzeko. Tokiko Erakundeak azaldu du parkea oso gutxi erabiltzen dela, antzeko beste gune batzuk daudelako inguruan.

Hainbat lan egingo dituzte Jubilatuen Etxean. Arrapala bat eraikiko dute eta hobe-

kuntzak egingo dituzte espaloietan. Horrez gain, kluba alboko gune berdea atonduko dute, nagusientzako ariketa fisikorako gailuak eta mahai joko finkoak jarritz.

Autobusentzako geraleku bat jarriko dute baita.

San Prudentzioko baselizako eta hilerriko obrak abian



Baselizan eta hilerrian egingo dituzte lanak. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Abian dira San Prudentzioko obrak. Baselizako isurketa urak bideratu eta egurrezko egitura, zokaloak eta argiteria konponduko dituzte. Hilerrian, aldiz, hainbat gauza berrituko dituzte: estaldura, leihoak, teila-

tu-hodiak, zorua, ate nagusia, hormak eta barruko sabaia.

Lan horiek guztiak egiteko hitzarmena sinatu du Okondoko Udalak azpezpikuarekin hurrengo hamar urteetarako. Tokiko erakundeak 17.000 euro bideratu ditu obretara. Gaintzekoa -% 60- Arabako Foru Aldundiak finantzatu du.

Hirigintza arautegia moldatu dute klima aldaketa dela eta

Klima aldaketak herrian duen eraginari buruzko ikerketa bat gauzatu du Okondoko Udalak, Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorren (HAPO) markoaren barruan.

Tokiko erakundeak adierazi du eginiko analisiak isla izango duela udalerrriaren hiri-garapenean, moldaketa ugari egin direlako eraikuntza arautegian.

Hainbat gomendio eta arau

Hainbat gomendio eta bete beharreko arau ezarri ditu udalak. Horien helburua izango da klima-aldaketatik eratorritako arazoak prebenitu eta leuntzea. Eraikuntzan zer material erabili eta energia eta ura aurrezteko zer sistema jarri zehaztu dute arautegian, ura hartzeko zenbait baldintzekin batera.

Orozko

Beraza, San Migel eta Maltzarragako hainbat bide asfaltatuko dituzte

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hainbat obra egin ditu Orozkoko Udalak herriko hainbat auzotan. Alde batetik, Maltzarragako bidea asfaltatu dute, oso egoera txarrean baitzegoen inguruko basoen ustiapena kausa.

Beraza eta San Miguel auzoetako errepideetako zenbait zulo konpondu dira baita ere. 41.321,58 euroko aurrekontua baliatu dute hiru lan horiek egiteko. Josu San Pedro alkateak adierazi duenez, obra horiek bideak konpontzeko planaren ba-

rruan egin dituzte, eta Garigorta auzoko bideko hainbat zati berrituko dituzte, urtea amaitu baino lehen.

Ur edangarria Katadion

Beste obra garrantzitsu bat amaitu berri dute Katadion: ur edangarria eramateko sistemarena. Meatzako biltegitik eraman dute hoditeria auzoraino. 170.455,94 euro baliatu dituzte guztira obraren bi faseak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren 92.046,21 euroko diru-laguntza baliatuta. San Pedro nabarmendu du ez dutela desjabetzerik egin behar izan.



Neurrira prestatutako menuak, lagun, senide edota lankideekin urte amaiera ospatzeko



MURUETA 14, 48410 · OROZKO · T.94 694 1146

WWW.OSABARENAHOTELA.COM

INFO@OSABARENAHOTELA.COM

HOTEL OSABARENA

Amurrio

Borrokari dihardute Tubos Reunidoseko langileek



Mobilizazioa egin zuten langileek Amurrioren astelehenean.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Borrokari jarraitzen dute Tubos Reunidoseko langileek, enpresaren zuzendaritzak ezarri nahi duen lanpostuen suntsiketaren aurka. Astelehenean egun osoko greba egin zuten beharginak. Eguerdian Arabako Batzar Nagusietara joan ziren, eta mo-

bilizazioa egin zuten arratsaldean Amurrioren.

Lanuzteak egiten ari dira egunero, ordu eta erdi geldituz txanda aldaketa bakoitzean. Langileek salatu dute zuzendaritzak euren ordainarazi nahi diela enpresak duen 300 milioi euroko zorra, "lanpostuak suntsituz eta prekarietatean sakonduz".

9 pertsona kontratatuko ditu udalak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bederatzi pertsona kontratatuko ditu Amurrioko Udalak bi enplegu programen bidez. Lehen egitasmoak udalaren azpiegiturak mantentzea izango du helburu; herriko mendiak zaintzea, aldiz, biga-

renak. Hainbat irizpide zehaztu dituzte langileak hautatzeko: lanpostuen % 40 emakumeek bete beharko dituzte eta % 15 gutxienez, 55 urtetik gorako langileek.

Interesdunek Lanbideko egoitzan eman beharko dute izena, abenduaren 12a baino lehen.

Hainbat obra egingo dituzte herrian urtea amaitu baino lehen



Bi markesina jarriko dituzte Landaburu kalean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Obra ugari abiatuko ditu Amurrioko Udalak abenduan. Landaburu kalean egingo dute lan horietako bat. Bi markesina jarriko dituzte kaleko 4. zenbakiaren parean, autobus-lineako erabiltzaileentzako. 28.459,7 euro bideratuko dituzte urte berria iritsi baino lehen amaitua egongo den obra horretara.

San Mames etxea

Halaber, hainbat lan egingo dituzte baita San Mames Etxean, erakinaren irisgarritasuna bermatzeko. "Gaur egun ez dago higiezin horretara iristerik, eskailera-maila batzuk daudelako kanpoko urbanizazioarekin dagoen desnibela gainditzeko", adierazi dute udaletik. Horregatik, arrapala eraiki eta terraza bat atonduko dute, 18.373,72 euro baliatuta.

Reforreko fatxada

Reforreko txakolindegia fatxada konponduko dute, "altxatua dagoelako eta hezetasun ugari dituelako eta arotzeria hondatuta dagoelako". 29.336,42 euroko aurrekontua izango dute berrikuntza hori egiteko.

Iturralde-Elexondo

Iturralde-Elexondo inguruko oinezkoentzako gunean egingo dute azken obra, 39.347,52 euroko aurrekontuarekin.

Tokiko erakundetik jakinarazi dute "pasealekuko bi parterre eta zuhaitzik gabeko hainbat txoko" kenduko direla, eta eskudel bat jarriko dela Iturralde kaleko 6. zenbakiko higiezinaren albobatean. Gaineratu dute kaleko bi farolen kokalekua aldatuko dutela eta zoruaren zati batzuk berri egingo dituztela, hondatu egin direlako ibilgailuen zirkulazioaren eraginez.

Goikolarra eta Landakoko 164 lagunek hartu dute parte klima aldaketari buruzko inkestan

Galdetegi egin dute Goikolarra eta Landakon, Good Local Adapt proiektuaren lehen pausogisa. 164 bizilagunek erantzun dute inkesta, eta % 90ek azaldu dute kezka klima aldaketak herrian eragin ditzakeen ondorioengatik. %73ek, aldiz, adierazi dute beharrezkoa dela instituzioen eta herritarren arteko lankidetzaren ematea alor horretan.

Klima aldaketaren inguruko kontzientziarazioa sortzea da egitasmoaren xedea. Europar Batasunak finantzatu du ekimena eta bi urteko iraupena izango du.

Udala saritu dute

Bestalde, saria jaso du Amurrioko Udalak "Guztion artean eginez" enpresa-foroan, paper ekologikoa erabiltzeagatik. 2015. urtetik aurrera % 100 birziklatutako zelulosa ekonaturala erabili du tokiko erakundeak. Material horrek ez du produktu kimikorik eta % 100 jasagarria da ingurumenarekin. "Tamaina ertaineko 51 zuhaitz salbatzen lagundu dugu eta eguratsera 2883,6 kilo CO2 igortzea ekidin", jakinarazi dute udaletik.

Herriko hainbat gune asfaltatuko dituzte datozen egunetan

Amurrioko Udalak jakinarazi du hainbat asfaltatze-lan egingo dituela hurrengo egunetan. Hainbat bide berrituko dituzte: Goikolaratik San Josera jaisten dena, Arenalde kaleko 9. zenbakiaren parean dagoenaren zati bat, Venta de los trigueros izeneko guneetik Casa de los Hierros izeneko raino doana eta Etxegoien kaleko 10, 12, 14, 16. atarrien atzealdea. Tokiko erakundeak aurreikusi du lau zapabost egunetan amaituak egongo direla obra guztiak, baina gaineratu du lanen bukera-data "baldintza meteorologikoen arabera" izango dela. 50.000 euro baino gehiago baliatuko dituzte.

USHUAIA Dionisio Aldama, 20 (Geltokiaren aurrean) AMURRIO Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILE-APAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · PERFUMERIA · OSAGARRIAK

BIZARGINTZA ZERBITZU BERRIA
"New barber" tendentzia berria

- Bizarra kentzea
- Kokospekua eta patillak txukuntzea
- Mozketak
- Kolore tratamenduak

EZKONTZETARAKO BONU BEREZIAK

Instagram Facebook Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería

LOUMARA
GARBIKETAK

Garbiketa orokorrak, obra amaieren garbiketarako, komunitateen, lokalen eta bulegoen garbiketarako egiten ditugu. Tapizerien garbiketarako ere arduratzen gara: sofak, aulkiak, koltxoak, ...

limpiezas.loumara@gmail.com + 620075132

herriz herri

Aiaraldea

Indarkeria matxistaren aurkako aldarriek hartu dituzte kaleak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Indarkeria matxistaren aurkako aldarriek hartu zituzten Aiaraldeko kale eta plazak azaroaren 25ean. Elkarretaratzeak egin zituzten eguerdian ia herri gehienetan. Orozkon bildu zirenek Amagoia Elezkano izan zuten gogoan, bere bikotekideagatik 2013. urtean erahildako auzokidea. Arratsaldean Berdinkrosaren bigarren edizioa egin zen Artziniegan, eta eskualdeko mobilizazioa egon zen Laudion, Ikasle Egun Feministaren barruan.



Elkarretaratzeak egin zituzten herri gehienetan. Aiaraldea.eus

Arabako kontzejuetako ordezkari berriak hautatu dituzte

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Igandean egin zituzten Arabako kontzejuetako hauteskundeak. 334 juntetako 28.626 auzokidek izan zuten bozkatzeko aukera, eta parte hartzea %40 ingurukoa izan zen, Arabako Foru Aldundiak igandean

eman zuen behi behineko informazioaren arabera.

Gaur -azaroak 29- emango dituzte behin betiko datuak, eta kontzeju bakoitzeko ordezkari berriak zeintzuk izango diren zehaztuko dute.

334 junta daude Araban, horietako 31 Aiaraldean: Aloria, Artomaña, Baranbio, Delika,

Larrinbe, Lekamaña, Lezama, Saratxo, Tertanga, Agiñaga, Añes, Arespalditza, Opellora, Etxegoien, Erbi, Izoria, Lexartzu, Lanteno, Luxo, Luiaondo, Madaria, Maroño, Menagari-Beotegi, Menoio, Murga, Olabazar, Ozeka, Kexaa, Erretes-Lanteno, Salmanton eta Soxo.

400.000 euro uraren zapore eta usain txarrak kentzeko


Testua
Txabi Alvarado Bañares

Kantauriko Urkidezak jakinarazi duenez, "400.000 euroko inbertsio garrantzitsua" gauzatu dute Izoria, Luiaondo eta Laudio edateko uren araztegiatan. "Urak izan ditzakeen zapore eta usain txarra deuseztatzeko" balioko du eginiko obrak.

Horrez gain, Maroñoko urtegiaren % 68 beteta dagoela ziurtatu dute partzuergotik, "hurrengo lau hilabeteetarako erreserbak ditugu".

700 ume

Bestalde, Ur Partzuergoaren programan parte hartu dute Laudio eta Amurrioko Lehen



Hurrengo lau hilabeteetarako ur erreserbak daude. Irati Beltrán

Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleek, 700 baino gehiagok guztira.

Partzuergoaren azpiegiturak bisitatu dituzte, ur-araz-

ketaren gaineko ezagutzak haienganatzeko. Klasean egingen ari dira programaren bigarren zatia, fitxak osatuz eta muralak eginez.

Ibaiko uraren kalitatea hizpide instituzioetan

Testua
Aitor Aspuru Saez

GoiNerbioi Bizirik plataformaren jarduerak, Amurrioren jazotako isurketaren ondorioz, mugimendua sortu du erakunde eta alderdien artean. Izan ere, URA agentziaren lehenengo erantzuna plataformaren kexen harira plataforma bera salatzen iradokizuna izan bazen ere, bestelako mezuak ere zabaldu ditu.

Horrela, URAk proposatu du uren tratamenduen eredu aldaketa. Hasteko, gogoratu dio Espainiako Gobernuari berari dagokiola Markixanako eta Basurbeko araztegiak egiteko lanak abiatzea.

Laudioko Udalak, bere aldetik, ziurtatu du Basurbeko obrak

ahalbidetzeko abangoardian dagoela eta kudeaketa lanak egin dituela zentzu horretan.

Horrez gain, tokiko erakundeak zenbait etxebizitzekin harremanetan jarri behar izan da isurketak saihesteko. Duela hilabete batzuk Aldaikorrekako saneamendua gauzatu arren, usain txarrek jarraitzen zuten eta, antza, horren ardura zenbait etxebizitzena zen, euren ur beltzak ibaira bideratzen baitzituzten.

Kontrol puntuak

Gainera, Arabako PPK ere Foru Aurrekontuetan zuzenketa egin nahi du Laudion Nerbioi ibaiaren egoera ekologikoa neurtzeko. Alderdiaren ustez, adierazlea egon behar da etengabe herrian isurketak ekiditeko.

EUSKARA asteburua

Abenduak 1 ostirala

Oxigenoa Euskarari "6.000 metroan" Institutuan eta Ikastolan; La Milagrosan, abenduaren 4an

Bertso-saioa

Laudioalde lanbide eskolako zine-aretoan. 19:00.

Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Uxue Alberdi eta Oihana Bartra Gai-jartzailea: **Izar Mendiguren**

Abenduak 2 larunbata

Umeentzako artzain-kirolen jolasak

Aldai plazan. 12:00-13:30.

Kalejira - San Roke musika banda

Herriguneko kaleetatik. 13:00-14:30.

Kantu-kalejira Arloteekin

Herriguneko kaleetatik. 13:00-14:30.

Sorgin Zapatuak. "Txoborro" magoa

Lamuza Parkeko ludotekan. 17:30-19:30.

Euskarazko zinema. "Handia" filma

Laudioalde zine-aretoan. 17:30 (eus) eta 20:00 (gaz).

Multimedia rallya (gazteentzat)

Gaztelekuan. 18:00-21:00.

Kantu-kalejira. Nafarroa taldearekin.

Herriguneko kaleetatik. 13:00-14:30.

Abenduak 3 igandea

Antzerkia. Irrien lagunak

Laudioalde eskolako zine-aretoan. 17:30.



LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin, maite-
mindu, jolastu, gozatu,
sentitu...
zu zeu izan Kutxabanken
ere, bizi euskaraz.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Galdetu zure bulegoan.



Abenduak 3.
Euskararen Nazioarteko Eguna
Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus

Erreforma ez, finantziazioa soilik

Uste duenak Estatu Espainiarreko lurralde aldarrikapenei jaramon egingo dien konstituzio erreforma bat emango dela, desilusio bat biziko du laster. Iragarpen ilun hori, baina, Kongresuan gehiengo dutenen borondate politiko faltaren ondorioa da. Ez dago borondaterik aurre egiteko Katalunian agerikoa bihurtu den eta Nafarroan baino lehen Euskadin loratu ahalko litzatekeen errealitate ukaezinari.

Beldur eszeniko hori hobeto ulertu daiteke kontuan hartuta PP edo Ciudadanos bezalako alderdiek Konstituzioa erkidegoen egungo egiturari begira aldatzeari dioten beldurra, procésaren desafioaren aurrean ahulgune gisa ikusi daitekeelakoan.

Hala ere, jada 40 urte dituen konstituzio horrekiko inmobilismoaren atzean, berzentralizazio prozesu bat egiteko asmoa dago ziurrenik, neurrigabeko nazionalismo espainiar batek lagunduta. Testuinguru horretan ez du tokirik nazioaniztasunaren gaineko eztabaidak ez eta, noski, erabakitzeko eskubidearenak.

Horregatik, posiblea da konstituzioa erreformatzeko behar sumindu hau egungo finantziazio autonomikoaren gaurkotze sinple batera mugatzea. Alderdi nagusiak ardurati ekingo liokete lan horri, badakitelako horrela erkidegoetan egiten duten gobernu-lana errentagarri bihurtuko litzuketela.



JUAN MARI GASTACA
Kazetaria



JULEN ARZUAGA
Legebiltzarkidea

Euskal konstituzioa egingo dugu

Mikelek kontatzen du orain dela 39 urte atxilotua zegoela. Torturatzen ari ziren bitartean entzun zuen irratian: "Konstituzioa onartu da". Gero elektrodoek, bainerak, kolpeek jarraitu zuten. Mikelentzat ez zen egon Konstituzio aurreko eta osteko garairik. Ez zuen aldea igarri.

Konstituzio horrek hainbat eskubide eta askatasun aitortzen du: norbere osotasun fisiko eta morala, arbitrarioki ez atxilotzeko eskubidea, adierazpen askatasuna, biltzeko eskubidea... agertzen dira paperean. Malkoz eta odolez bustitako papera. Ez soilik pertsonen eskubideak. Batzuek esan zuten herrien aitortza eta askatasuna bermatuko zela Konstituzioaren bitartez, estatutuak garatuta. Artikulu hau idazten ari naiz Legebiltzarraren, eta entzuten dut ez dugula eskumenik Arabia Saudiari armen salmenta gelditzeko. Egun batean bai, hurrengoan ere bai, gauza garrantzitsuak erabakitzeko gure ahalmena zein murrizta den ikusten dugu. Sufritzen dugu. Konstituzioa eta Estatuari esker.

Gure aitzindari politikoek esan zuten 78ko Konstituzioak eta marrazten zuen erregimenak ez zituztela gure helburuak beteko. Gaur, atzetik etorri garenok, agiaztatzen dugu Espainia, bere erregima eta konstituzioa ustelduta daudela eta ez dagoela oinarri demokratikorik herrien eta pertsonen askatasuna bermatzeko.

Horregatik esan genuen Euskal Konstituzioa egin behar dugula, eta oraindik ere esaten dugu. Mikelek beste era batean esaten du.

“Posiblea da konstituzioa erreformatzeko behar sumindu hau gaur egungo finantziazio autonomikoaren gaurkotze sinple batera mugatzea”



GALDERA

Konstituzioaren Eguna ospatuko duzu?



Roberto
Langabea

Nik pertsonalki ez. Jaieguna dela, hori da interesatzen zaidan gauza bakarra. Etxean igaroko dut zubia. Deskantsu hartzeko egunak dira niretzako, ez dago ospatzeko moduko ezer.



Irantzu
Gizarte langilea

Ospatuko dut Konstituzioaren Eguna, baina behartuta. Egun horretan jaia dugu lanean, ezin dugu opor eguna beste noizbait hartu. Beste gauza batzuk egiteko aprobeztatuko dut.




Juan
Ostalaria

Lanean ospatuko dut, ostalaritzan jarduten baitut. Jaiegunetan beti irekitzen dugu. Senide batzuk kanpora joango dira, baina gehienontzako beste egun bat baino ez da.



Lola
Etxeko langilea


Ni etxean geratuko naiz Konstituzioaren Egunean, jaieguna delako. Lasai igaroko dut abenduaren 6a. Ez dut zubirik hartuko, egun hori izango dut soilik libre.



Floren Usia

Euskararen nazioarteko eguna!

ABENDUAK 3



NATXO URKIXO

LAUDIOKO ALKATEA

“Hamaika ‘ahobizi’, hamaika ‘belarriprest’. Aiaraldea ‘ahobizi’ eta ‘belarriprest’-ez bete dugu. Hamaika pertsona inplikatu da proiektuan eta hamaikak aldarrikatu du euskaraz normaltasunez bizitzeko nahia. Aurtengoan, euskararen eguna hilabete bilakatu dugu. Datozenetarako bilaka dezagun urte,... bilaka dezagun bizitza oso bat euskaraz”.



SERGIO TATO

OKONDOKO ALKATEA

“Euskara hizkuntza bakarra eta berezia da, eta hori goraiatzea eta zaintzea, guri, euskaldunoi dagokigu. Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmititu den altxorra zaintzeko betebeharra hedatzeko unea da. Amaitzeko ez ahaztu, gaur bai, baina datorren 365 egunetan ere euskaraz koloreztatu behar ditugula gure herriko kaleak”.



JOSU SAN PEDRO

OROZKOKO ALKATEA

“Ate joka dugu Euskararen Eguna. Ospakizunez beteriko garaia; aurtten Urduñak luzatu digu deia. Egun handia ospatzeko, hala ere, urtea egun txikiz bete behar da; herrietan euskararen erabilera handituko dutenak. Orduan bai izango dugula ospakizun HAN-DIA, eta ez egun bakarrekoa. Ahoa prest eta belarria bizi izatea da bidea; lortuko dugu!”.



ITZIAR DUOANDIKOETXEA

ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO ALKATEA

“Ate joka daukagu euskeraren eguna. Aurtten ere, bultzakada handi bat emongo dautsagu. Gure herrian, gainera, Aiaraldeak antolatu dauen Ahobizi eta Belarriprest ekimenegaz indarrez hasi ginan. Indar horrek ez dagiala iraun hilebete bakarrik. Eguneroko eta bizitza osorako gure hizkuntza EUSKERA izan dagigula”.



GENTZA ALAMILLO

AIARAKO ALKATEA

“Euskara erabiltzea da euskara indartzeko errezetarik eraginkorrena. Erakunde publikoen obligazioa, aukerak eta baldintzak ahalbidetzea da eta nork bere mailan naturaltasunez eta konplexurik gabe edozein esparru eta egoeratan euskaraz aritzea. Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan lan egitea izan dadila”.



JABI ASURMENDI

ARAKALDOKO ALKATEA

“Aurtten hamarnaka ahobizi eta belarriprest atera gara armairutik Arakaldon eta milaka Aiaraldean, batzuk une oro euskaraz komunikatzeko konpromisoarekin, beste batzuk entzuteko eta ulertzen saiatzeko xedearekin, denok 365 egun euskaraz bizitzeko ametsarekin... Eta hemendik aurrera amets hori egi bihurtuko bagenu?”.



JOSUNE IRABIEN

AMURRIOKO ALKATEA

“Aurtengo ‘Euskararen Eguna’ inoiz baino biziago eta prestuago ospatuko dugu Amurrioren, herritarren %12k eman baitugu izena ‘ahobizi eta belarriprest’ dinamikan. Norbanakook egunerokoan hartzen dugun konpromisoa ezinbestekoa da euskararen normal-kuntzan. Baita, abenduaren 3tik aurrera ere. Hortaz, euskaraz gozatu eta euskaraz bizi!”.



IDOIA AGINAKO

URDUÑAKO ALKATEA

“Ekimen polita aurkeztu ziguten: euskara armairutik atera eta Ahobizi eta Belarriprest izatea. Lan handia dugu aurretik Urduña hiri euskalduna izateko, baina urrats bakoitza garrantzitsua da. Aurtten bertan ospatuko da Aiaraldeko Euskararen eguna; parte hartzera eta gozatzerantz animatzen zaituztet! Erronka: urte osoan zehar Belarriprest eta Ahobizi izaten jarraitzea”.



IÑIGO GOMEZ

ARTZINIEGAKO ALKATEA

“Betidanik aldarrikatu dut, nahiz eta akatsak egin, hizkuntza erabiltzea dela garrantzitsua. Ezinbestekoa da euskaraz egitea ahal dugun neurrian, eta ez bakarrik Euskararen nazioarteko egunean, baizik eta egunero. Euskara bizi mantentzeko modu bakarra da”.



MAIDER BASTERRA

AIARAKO KUADRILLAKO PRESIDENTEA

“Aiarako Kuadrillatik bai teknikoki bai politikoki hurrengo urteari begira indartuko dugu euskararen presentzia antolatutako ekintza guztietan. Horretarako ezinbestekoa da koordinazioa hobetzea eta elkarlana. Kuadrillak berak eta osatzen dituen bost udalek aldarrikatzen dugu geure kultura eta geure hizkuntza gero eta ozenago”.



AIARAKO UDALA



AMURRIO



OROZKOKO UDALA



URDUÑA ORDUÑA



ARAKALDOKO UDALA



OKONDOKO UDALA



LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO



ARTZINIEGAKO UDALA



ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA



AIARAKO KUADRILLA

erreportajea

Igandean -abenduak 3- bukatuko da Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak azaroa hasieran abian jarritako kanpaina. Urduñan izango da amaiera-jaia. Ekimenaren antolatzaileek positiboki baloratu dute erronkaren harrera, 4.500 aiaraldear animatu baitira astebetzez euskaraz bizitzera.

Geratzeko etorri dira Ahobizi eta Belarriprestak eskualdera



Urrian egin zen kanpainaren aurkezpena, Urduñan. Hirian egingo da baita egitasmoaren amaiera-jaia, Euskararen Nazioarteko Egunaren testuinguruan. **Bego Guillen**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Eskualdeko 4.500 lagunek hartu dute parte euskara sustatzeko abian jarritako erronkan. "Populazioaren % 20 parte hartu du herri txikietan, eta handietan ere ez gara horren atzean ibili", jakinarazi dute Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko kideek. "Espero baino Ahobizi gehiagok hartu dute parte egitasmoan, baina nahi baino Belarriprest gutxiagok".

Hala ere, "pozik eta harro" azaldu dira herritarrek egini-ko ahaleginarekin. 100 lagun baino gehiago aritu dira au-

zolanean eta makina bat ekin-tza egin dira herri eta auzoetan. "Norbanakoen konpromisoa helburu kolektibo bihurtu dugu", adierazi dute ekimenaren antolatzaileek, eta gaineratu dute "sorpresa politak" egon direla "herri-desafioak" iraunduen egunetan: "jendeak ezustekoa hartu du bere ingurunea uste baino euskaldunagoa dela jakitean".

Hori gertatu zaio Loli Garcia amurriarrari. Belarriprest gisa aritu da astebetzez, eta gustatu zaio esperientzia. "Badago parte hartzeraz animatu ez den jende ugari, euskaraz gaizki hitz egitearen beldur diela-

ko. Baina pausotxo bat ematea baino ez zaie falta".

Garciaren iritzi berekoa da Eukene Larrea Ahobizia: "Badago lotsagatik euskaraz hitz egitera animatu ez den jendea, baina euskaraz egin diet eta bi hizkuntzak nahastuaz erantzun didate".

Egoitz Vadillori ere asko gustatu zaio kanpaina, baina aitortu du oztopo handi batekin egin duela topo euskaraz bizitzeko erronkari helduekin: ohitura falta. "Ohitura daukat euskaraz hitz egiteko, nire neska laguna Durangokoa delako. Baina koadrilako kideen artean gaztelaraz mintzatzen gara, guztio-

Aurreikusi baino askoz Ahobizi gehiago batu dira kanpainara. Belarripresten kasuan, baina, ez da lortu planteatutako markara iristea

keuskaraz dakigun arren", azaldu du. Artzniegarrak gaineratu du toki-publikoetan ere nabaria dela euskara eza; "jatetxe askotan menua gaztelera hutsez dago, adibidez".

Seme-alabak motibazio

Seme-alabekiko hizkuntza ohiturak aldatzea izan da kanpainaren xedeetako bat. "Ardu- eta erantzukizun osoa txikiengan jartzetik helduen teitlatuan kokatzera jo dugu aurtent", adierazi dute kontseiluko kideek, "ume txikiak ahobizi direla ulertzen dugu, baina helduon laguntzarik gabe ezingo dira sekula euskaldundu".

erreportajea

Horregatik ausartu da Itziar Harillo Guaresti urduñarra Belarriprest gisa aritzera. “Nire alabengatik egin dut batez ere”, aitortu du. Gustatzen zaio ka-lean euskara entzutea: “Jende askok hitz egiten du, baina ni ez naiz ausartzen erantzutera”. Horregatik, “motibatze modua da” izan da berarentzat kanpaina.

Iñaki Cabeza amurriarra ere saiatu da euskaraz bere alabekin eta emaztearekin gehiago solasten. Hala ere, erronka handiena “hemendik aurrerakoa” dela azpimarratu du, “gure eguneroko bizitzan islatu behar dugu kanpaina honetan eginikoa”.

Euskararen Eguna, Urduñan

Urduñan emango zaio amaiera kanpainari. Hirira bertaratu-ko dira eskualdeko Ahobizi eta Belarriprestak abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Zita garrantzitsu hori Urduñan izateak “ilusio berezia” sortu du hirian, Matxalen Garcia Escuderoren esanetan. Par-te hartzean islatu da ilusio hori:

Datorren urtean erronka are handiagoa egingo da: 11 egun igaroko dituzte euskaraz bizitzen Euskal Herriko ahobizi eta belarriprest guztiek

“Hirukoiztu egin da Ahobizi kopurua, 550 urduñar baino gehiago batu dira kanpainara”. Eus-kalgintza Kontseiluko kideak nabarmendu du “lanketa handia” egin dela hezkuntza zen-troetan. “Tar-tarra Kartoi Band umeen txaranga ere berpiztu da, entseatzen ari dira igandeko kalejira gidatzeko”.

Foru Plaza izango da ospa-kizunaren epizentroa. Bertara gerturatzeko zutabeak egingo dituzte goizeko hamaiketan. Herri bakoitza puntu ezberdin batetik abiatuko da. Aiara, Artziniega eta Okondoko bizilagunak Gernika plazatik joango dira Foru Plazaraino. Urduña, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldoko herritarrak, aldiz, Anbulategi alboan batuko dira. Amurriorek Gesaltzako parkinga izango dute abiapuntu, eta tren-geltokia, aldiz, Laudiotik doazenek.

Horrez gain, hitzorduak jarri dituzte goizean hainbat herrietan, Ahobizi eta Belarriprest guztiak batera joateko Urduñara (ezkerreko zutabean ikusi daitezke ordutegiak).

Zutabe guztiak Foru Plazara iristen direnean emango zaio hasiera egitarauari.

12:00etan izango da ekitaldi nagusia. Buruhandiak eta haur-errentzako jolasak egongo dira gero, Hilean Bariku Bat talde orozkoarrak kontzertua eskaini bitartean. 13:30ean irekiko da “bartzari-buffeta”. Indabak, paela eta txerriak eskainiko dira (bost euro plater bakoitzeko).

16:00etan egingo da agur ekitaldia. Kale animazioa, batukada, puzgarriak, zozketak eta beste hainbat ekintza egongo dira egunean zehar.

Datorren urtean, 11 egun

Hala ere, igandean ez da ezer amaituko. Aurtengo kanpaina “datorren urterako beroketa” izan dela ohartarazi dute sus-tatzaileek. “Erronka nazionala” izango da 2018koa, Euskal Herri osoko pertsonak arituko baitira 11 egunez euskaraz bizitzen.

“Makinariak berotuak izango ditugu ordurako”, ziurtatu dute Kontseiluko kideek. Hortaz, gertatzeko etorri dira ahobizi eta belarriprestak.

IGANDEKO EGITARAUA

11:00 Zutabeak

Amurrio: Gesaltzako parkinean
Laudio: Tren geltokian
Aiara, Artziniega, Okondo: Gernika plazan
Urduña, Arrankudiaga-Zollo, Orozko, Arakaldo: Anbulategian

11:30 Ongietorria

Ahobizi eta Belarriprest guztiei, Foru Plazan

12:00 Ekitaldi nagusia

Ahobizi eta Belarriprestekin dantza 12:30 // **Buruhandiak eta haurerrentzako jolasak**

13:00 Musila

Hilean Bariku Bat

13:30 Bartzari-buffeta

Indabak, txerriak eta txerriak (5 euro platera)

16:00 Bartzalostea eta agurra

Kale animazioa, batukada, puzgarriak, zozketak... egongo dira

Hitzorduak

ARRANKUDIAGA-ZOLLO
10:24 trena

ARAKALDO
10:28 trena

OROZKO
10:15 eskolan,
autoetan joateko

OKONDO
10:15 Kultura etxean,
autoetan joateko

LAUDIO
10:32 trena

ARETA
10:30 trena

AIARA
10:30 Etxaurren
ikastolan, autoetan
joateko

LUIAONDO
10:38 trena

AMURRIO
10:44 trena

ARTZINIEGA
10:15 frontoian,
autoetan joateko

URDUÑA
11:00 Anbulatorioan,
oinez joateko



2017/11/30
2017/12/10



Kultur egitarau oparoa eskualdean Euskararen Egunaren magalean

Makina bat ekintza egongo dira datozten egunetan Aiaraldeko herrietan, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta. Ahobizi eta beharripresten dinamizakari lotutakoak izango dira ekimen horietako asko, baina egongo dira baita bestelako kultur ekitaldiak ere. Jarduera horietako batzuk hezikuntza zentroetan egongo dira. La

gingo baitira Laudio, Amurrio, Artzimiega edota Urduñan. Kalejirak, dantzaldiak, umeentzako ikuskizunak eta beste hainbat jarduera egongo dira.

Igandean, aldiz, Urduñara bertaratuko dira eskualdeko milaka lagun, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak abian jarritako kantuanari amaiera emateko.

Milagrosa ikastetxean, adibidez, flashmoba grabatuko dute ostiralean. Artzimiegako Arteko Gure Aman, aldiz, tailerrak eta jolasak egongo dira egun horretan.

Bezperan, kale giroa nagusi Abenduaren 2an kaleetara egingo dute jauzi euskararen aldeko aldarriek, hainbat ekintza

Feminismo beltzak izango dituzte hizpide Amurrrion



Aurrera doa azaroaren 25aren harira antolatutako ekintzen maratoia. Ostiralean -abenduak 1- Jeanne-Rolande Dacougna Min-kette egongo da Amurrioko Kultur Etxean, feminismo beltzen inguruan hitz egiten. Jaiotzez senegaldarra bada ere, egun Donostian bizi da Dacougna. Hispaniar Filologia ikasketak egin zituen eta Biltzen (Gizarteratze eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua) erakundeko kidea da. Arratsaldeko seietan hasiko da solasaldia.

Ermualdeko indusketak hizpide pintxo-potean

Ermualdeko indusketak jendarteratzeko hainbat ekintza egongo dituzte. Abenduaren 2an bisita gidatuak egingo dituzte, 10:00etatik 17:00etara, orduro. Ez da aurretik izena eman behar, nahikoa izango dazitako batera agertzearekin. Abenduaren

Saratxoko Jaiak ospatuko dituzte abenduaren 1etik 9era. Lehen egunean Sabin Guarestiren kontzertua eta diskodantza egongo dira. Abenduaren 2an mus txapelketa egingo da eta 3an, aldiz, XV. Mendi mar-txa. Aiaraldea.eus atarian ikusi daiteke egitarau osoa.



Musika, musa eta mendia Saratxoko Jaietan



MUSIKA

12.01 Ostirala
17:30 OKONDO
JALGI HADI DANTZARA
Familiantzako abesti eta koreografiaren kontzertua
Kultura Etxea

12.01 Ostirala
22:00 AMURRIO
ETORKIZUN BELTZA
+ ELBERETH + THE FAITHLESS
Burubio Kultur Elkarte

12.02 Larumbata
19:00 LAUDIO
NAFARROA KANTA TALDEA
Herria

12.02 Larumbata
20:00 AMURRIO
GORBEIA AMURRION
Kontuak eta kantuak
Amurrio Antzokia

12.02 Larumbata
23:00 LAUDIO
HILEAN BARIKU BAT
Sorgin Taberna

ANTZERKIA

12.01 Ostirala
10:00 OKONDO
EZBERDIN BEZAIN EDER
Ipuin kontaketa musikatua
Eskola

TAILERRAK

12.02 Larumbata
10:00-20:00 AMURRIO
EL TEATRO DE LAS OPRIMIDAS
Lehen saloa
Kultur Etxean

12.02 Larumbata
18:00 LAUDIO
MULTIMEDIA RALLYAK
Gazteleku

12.03 Igandea
10:00-17:30 AMURRIO
EL TEATRO DE LAS OPRIMIDAS

12.03 Igandea
8:30 URDUÑA
MENDI MARTXA
Herriko Plazatik abiatuta

BESTEAK

12.01 Ostirala
AIARA
AIARALDEKO ADINEKOEN XVIII. TOPAKETA
Hainbat ekintza egongo dira egunean zehar. Bus zerbitzua egongo da hainbat herrietan

12.01 Ostirala
LAUDIO
LAB SINDIKATUAREN EKIMEN IBILTARIA
10:00 // Ekintza sindikaleko tailerra delegatuentzako
12:00 // LIDLera martxa
16:30 // "Lan duina, bizi duina" ekimena
18:30 // Amaiera ekitaldia
Herria

12.01 Ostirala
SARATXO
JAIAK
23:00 // Kontzertua: Sabin Guaresti
00:00 // Diskodantza
Herria

12.01 Ostirala
15:30-20:00 URDUÑA
EUSKARAREN EGUNAK
15:30 // Ahobelarrien dantzaldia, Andra Mari ikastetxean
12:00 eta 15:00 // Euskal dantzen erakustaldia eta Ahobelarrien dantzaldia, Herri ikastetxea
17:00 // Tartarra Turuta Banden kontzertua
Hala Dzipo: Euskal soinu tresnen kontzertu didaktikoa
Gaztein erreak eta ardo beroa
Euskal kanta herrikolak
Herria

12.01 Ostirala
19:00 LAUDIO
BERTSO-SAIOA
Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Uxue Alberdi eta Oihana Bartra
(Sarrera: 3 euro)
Laudioalde

12.01 Ostirala
19:00 / 22:00 LAUDIO
ORAIN PRESOKAK
Mahaingurua eta elkartasun afaria
Gure Aukera elkarte

Kartelera




LAUDIOALDE
ARETOA

Handia

Abenduak 2,
LARUBATA

Sarrera: 3 euro

17:30 / 20:00



DONIBANE
ARETOA

El pequeño vampiro

Abenduak 3,
IGANDEA

Heiduek 4 euro eta
12 urtetik beherakoek 2 euro.

16:30



DONIBANE
ARETOA

El secreto de Marrowbone

Abenduak 3,
IGANDEA

Heiduek 4 euro eta
12 urtetik beherakoek 2 euro.

16:30




LAUDIOALDE
ARETOA

Te quiero para siempre

Abenduak 9,
LARUBATA

Sarrera: 2 euro

17:30 / 20:00



AMURRIO
ANTZOKIA

Gatos, un viaje de ida y vuelta

Abenduak 3 eta 8

Sarrera: 3,6 euro

17:30



AMURRIO
ANTZOKIA

La librería

Abenduak

3, 4 eta 8

Sarrera: 4,8 / 3,6 euro

19:30 / 20:00

Laudiko etxe feministaren proiektua
aurkeztuko dute

Laudioko etxe feministaren proiektua aurkeztuko dute datorren abenduaren 15ean Lamuza Parkeko Musika Etxean. Arratsaldeko seietan izango da zita. Batzari irekia izango da, eskualdeko emakume orori luzatu diote gonbita, egitasmoa modu kolektiboan gauzatzea baitute helburu.



EL TEATRO DE LAS OPRIMIDAS

Bigarren saloa
Kultura Etxean

12.09
Larumbata
18:00 LAUDIO
MULTIMEDIA RALLYAK
Gaztelekua

UMEENTZAKO EKINTZAK

12.01
Ostirala
14:30 ZUHATZA
SUSTRAI DOINUA
Abesti ezagunen koreografia
dinamizatuak
Etxaurren Ikastola

12.01
Ostirala
17:00-20:00 OROZKO
EKINTZA PIKTORIKOA
Liburutegia

12.02
Larumbata
12:00-13:00 LAUDIO
UMEENTZAKO ARTZAIN
KIROLEN JOLASAK
Aldai Plaza

12.03
Larumbata
17:30 LAUDIO
EUSKARAREN TAUPADAK
Irrien Lagunal
(Sarrera: 3 euro)
Laudioalde

HITZALDIAK

11.30
Asteazkena
17:00 LANTENO
TELEALARMARI BURUZKO
IKASTAROA
Eskola

12.01
Ostirala
18:30 AMURRIO
FEMINISMO BELTZAK
Jeanne-Rolande Dacougna
Minketteren eskutik
Kultura Etxean

KIROLA

12.01
Ostirala
19:00 ARETA
EUSKADIKO LAU ETA
ERDIKO TXAPELKETA
Frontola

elkartasun afaria

Gure Aukera elkartea

12.02
Larumbata
10:00-20:00 ARTZINIIEGA
EUSKARAREN EGUNAK
12:00 // Jolas tradizionalak
famillentzat, frontoian
13:30 // Triki-poteoa
14:30 // Kantu bazkaria
(8 euro, udaletxean eman
behar izena azaroaren 30a
baino lehen)
18:00 // Ipuin kontaketa
txotxongiloekin, Gaztelekuan
frontoian
Herrian

12.02
Larumbata
SARATXO
JAIAK // Mus txapelketa
Eskolan

12.02
Larumbata
13:00-14:30 LAUDIO
KALEJIRAK
Arloteekin eta San Roke
Musika Bandarekin
Eskola

12.02
Larumbata
13:00-14:30 LAUDIO
51KO ETA 52KO KINTEN
BAZKARIA
(45 euro. Izena emateko
telefonoa: 646 037 679)
Toki On jatetxea

12.02
Larumbata
18:30 URDUINA
DANTZA PLAZA
Herrixa dantzan
Foru Plaza

12.03
Igandea
17:00-18:00 AMURRIO
EUSKARAREN EGUNA
17:00 // Umeentzako tailerrak
eta jolasak
18:00 // Txokolatada,
kandelen argipean
Juan Urrutia Plazan

12.04
Astelehena
18:00 LAUDIO
BIZI ZAITEZ BIZI
Programaren aurkezpena
Kultura Etxea

12.07
Osteguna
18:00 LAUDIO
BARNEFERENTZIA
Ermualderi buruzko hitzaldia
Sorgin Taberna

INFO +
aiaraldea.eus

Kultura

Gero eta gehiago dira jendaurrean antzeztera azaltzen diren emakumeak. Gizonezkoen espazio izan dira urte luzez teatroak. Horrekin apurtzera datoz azken urteetan ugaritzen ari

diren emakumeen antzerki taldeak. Aiaraldea da olatu horren lekuko; areagotzen ari baitira aldarria eta artea taula gainean bateratzen dituzten taldeak eta.

Emakumeen ahots eta kontakizunak, taula gainera



Iragan larunbatean estreinatu zuten Siroko taldeko kideek Bernarda 5.0 lana, Amurrio Antzokian. Aiaraldea.eus



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Azaroaren 25ean aurkeztu zuen *Bernarda 5.0-Zuzendaria- ren buruan* obra Laudioko Siroko antzerki taldeak Amurrio Antzokian. Talde amateurra da Siroko. Horrek, ordea, ez zituen ikaratu Federico Garcia Lorcaren obra famatua eszenara ekartzeko eta librean moldatzeko orduan.

Arazo sozial larri baten existentzia nahi izan zuten taularatu, eta *Bernarda Albaren Etxea* antzezlanaren oinarri hartzea horretarako aukera paregabea zela ikusi zuten, jatorrizko obrak emakumeenganako errepresioa eta indarkeria baititu hizpide: Patriarkatuaren eta emakumeen askatasun nahiaren arteko talka.

Hiru urte daramatzate elkar-tzen Siroko antzerki taldeko lagunek, azkenengo bi urteak azaroaren 25ean aurkeztu zuten obra prestatzen eman dituzte.

Zortzi kide osatzen dute taldea, gehienak emakumezkoak, adin eta jatorri oso ezberdinetakoak.

“Las Quijanas de Arciniega”

Badira eskualdean emakumez osatutako antzerki talde gehiago ere. Zazpi urte daramatza Artziniegako Hiriska emakume elkarteak ohol-tza gainera azaltzen. Antzerkia eta aldarrikapena uz-tartuz urtero obra bat prestatzen dute, Nuria Valienteren gidaritzapean.

Ahalduntze ariketatzat dute antzerkigintza hasieratik, jendaurrean lotsa kentzeko. Askoz gehiago jaso dute, ordea. Hiriskako emakumeek elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera paregabea izan dute antzerkia. Nerea Valiente antzerki zuzendariak asko lagundu die ibilbide horretan; berak idazten dizkie obrak. Ondo ezagutzen ditu Artziniegako emakume elkarte-kideak eta euren neurriko



Las Quijanas de Arciniega obra prestatu dute Hiriskako kideek

Otsemeakek antzerkia baliatuko du zapalkuntzak azaleratzeko

testuak prestatzen dizkie urtero. Herriarekin harremana daukaten gaiak lantzen dituzte normalean, betiere aldarrikapen mezu bana helaraziz. *Las Quijanas de Arciniega* dute azken antzezlan Hiriskakoek. Bertan historian emakumeek egindako lan anonimo eta aitortu gabea aldarrikatu eta jendarteratu nahi izan dute. *El Quijote* eleberri ezaguna izango dute horretarako hari.

Eszenatoki gainetik ez, modu horizontalagoan landuko dute antzerkia Otsemeak, Amurrioko neska gazte taldeko kideek. Emakumeen ahalduntzerako tresna izatea dute helburu abenduaren 2an eta 3an antolatuko duten *El teatro de las oprimidas* tailerra. Bi egunez emakumeek pairatzen dituzten zapalkuntzak aztertuko eta hauek iraultzeko hausnarketak bilduko dituzte antzeppen bidez. Izen emate epea zabalik dago otsemeak@gmail.com helbidearen bidez.

Suitzan egon da Iñigo Martinez, dantza ikuskizun bat prestatzen



Suitzan egon da Iñigo Martinez, Beweggrund programan parte hartzen. Bi aste igaro ditu erresidentzia batean bizitzen, munduko beste 11 pertsonarekin batera. “Peruko, Hego Afrikako, Italiako, Libanoko edota Alemaniako jendearekin egon naiz”, azaldu du dantzari laudioarrak. Aniztasun funtzionala duten dantzarien arteko elkarlana sustatzea izan da programaren xedea. Egitasmoa “oso esperientzia interesgarria” suertatu zaio Martinez, “partaideitsuak, gorrak... egon dira, nahasketa polita izan da”. Sei orduko entseguak egin dituzte egunero Alessandro Schiatarella koreografo italiarraren gidaritzapean, ikuskizun bat prestatzea helburu. Egondia amaietan taularatu zuten bi asteetan prestatu-takoa.


Joaquín Bárbara y Balza margolariaren biografia aurkeztuko dute



Joaquín Bárbara y Balzar buruzko liburua aurkeztuko du San Roke Kofradiak datorren abenduaren 15ean. 19:30ean izango da zita, Lamuza Parkeko Kasinoan. Egoitz Bernaola Luxak idatzi du biografia eta Kepa Barañano Aldekoa arduratu da euskarara itzultzeaz. Hiru urte behar izan ditu Bernaolak liburua osatzeko. Aurten 150 urte betetzen dira Bárbara y Balza jaio zenetik, 1867ko abenduaren 18an sortu baitzen Aldaiko etxean. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu San Roke Kofradiak. Abenduaren 15eko aurkezpenean artista laudioarraren margolan batzuk erakutsiko dituzte, orain arte argitaratu gabek.

HISTORIA

Lendoñoko trikuharriaren historia bildu dute



Duela ia 50 urte topatu zuten Lendoñoko dolmena. Rafa Mendibil Sobron

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Rafa Mendibil Sobron urduñarrak Lendoñoko trikuharriaren historia jaso du. Adierazi duenez, zelaian kokatutako monumentuaren berri eman zuten garai hartako egunkarietan. 1968. urtean jakin zuten eraikuntzaren berri. "Badirudi, garrantzitsua izan zela. Pena da 1974an ICONA makina batek suntsitu izana", adierazi du urduñarrak. Izan ere, inork ez zion beharginari "harri horien garrantzia" jakinarazi. 1982an berreraiki zuten dolmena, jatorrizkoa baino tamaina txikiagoarekin.

Mendibilen arabera, La Vanguardia egunkariak 1968ko martxoaren 10ean zabaldu zuen albistea: "Historiaurreko gizakien aztarnak aipatzen ziren dolmenaren aurkikuntzarekin batera". Dokumentazioan ageri denez, Okondoko gazte talde batek topatu zuen 15 metroko diametroko harria. "Ikuspegi arkeologikoari dagokionez oso aberatsa da", azaldu du Mendibilek. Europa Press agenziaren arabera, giza-

kien arrastoekin egin zuten topokaskezur zatiekin eta hortzekin, besteak beste. Horrez gain, keramika mordoa aurkitu zuten.

Bost kaskezur

Sei hilabete geroago kaleratu zuen erreportajea La Vanguardiak. Izan ere, Felix Murga Okondoko parrokoaren gidaritzapean aritu ziren hainbat espeleologo lanean. "Historiaurreko bost kaskezur antzeman zituzten ikerketan". Ezaugarri gehiago ere plazaratu zituzten, karratu formakoa zela, kasu. "Kareharrizko harri zabal handiak aprobetxatuta eraiki zuten".

Artikuluaren esaten denez, Lendoñoko kaskezuraren aurkikuntzak ahalbidetuko zuen duela 4.000 urte bertan bizi zirenen arraza ezaugarriak ikertzea. "Suharrien aztarnak ere topatu zituztela aipatzen da, hiru silex orri, hiru lepoko eta keramikazko zenbait elementu barne".


Keramikaren zantzuengatik uste dute trikuharria Erdi Aroan erabilia izan zela, nahiz eta ezin izan duten piezarik berreskuratu.

Zinebi jaialdian saritu dute Ager Mendieta gazte laudioarra

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bilboko Nazioarteko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburren Jaialdian (Zinebi) saritu dute Ager Mendieta. "New talent" saria jaso du gazte laudioarrak *La Petite Mort* film laburreragatik, Lalart Producciones ekoiztetzeko gaitortzeko kideekin batera.

Emakumezkoen masturbazioa jorratzen du pelikulak. Soinu arduraduna eta ekoizpen zuzendaria izatea egokitu zizaien Mendieta filmaren grabaketan.



Ortuzainaren etxeari eta Kasinoari begirako bilera irekia deitu dute

Bilera irekia deitu du SOS Laudioko Lamuza Parkeak datorren abenduaren 12rako, "kulturan interesa duten herriko elkarte, talde eta norbanako guztientzat". 19:00etan izango da zita, Kasinoan.

Bi gai landuko dituzte bertan. Alde batetik, Kasinoak behar dituen "hornikuntza eta beharren azterketa" egingo dute. Bestetik, "elkarlan proposamen bat" luzatuko dute, "Kasinoan eta Ortuzainaren etxean urtebeteko programazio pilotu bat koordinatu eta dinamizatzeko".

30 egun euskaraz Aiaraldean

ABENDUAREN 01etik 03ra

4.500 Bizi eta Prest-ek txanda egingo dugu elkarrekin!

ABENDUAK 3, igandea

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

URDUÑARA!

Eskualdeko topaketa eguna

Aiara Artziniega Okondo

Gernika plazan

Amurrio

Gesaltzako parkinean

FORU PLAZA

11:00 Zutabeak Foru Plazara

11:30 AHOBIZI eta BELARRIPREST guztiei **ongi etorria**

12:00 Ekitaldi nagusia AHOBIZI eta BELARRIPRESTekin **dantza**

12:30 Buruhandiak eta haurrentzako **jolasak**

13:00 Musika: "Hilean bariku bat"

13:30 Bazkari buffeta zabalik INDABAK, PAELLA eta TXERRIKIA (5€ platera)

16:00 Bazkalostea eta agurra

+ txosna, puzgarriak, batukada, zozketak, musika, buruhandiak, erraldoiak, kale animazioa...

Urduña Arrankudiasa Orozko Arakaldo

Anbulategian

Laudio

Tren geltokian

AMURRION

17:00-18:30 Haurrentzako tailerrak

18:00-18:30 Txokolate jana

18:00-19:00 Kandelen argipean

URDUÑAN

17:30 "Arima" diskofesta eta txokolate jana

LAUDION

17:30 Irrien lagunak: "Euskararen taupadak". Umeentzako ikuskizuna

Ezagutu gure Gabonetako saskiak

ARANTZAR POLIGONOA, 2
 01400 LAUDIO (ARABA)
 WWW.BEBIDASERRANO.COM
 TEL. 94 - 672 97 90
 INFO@BEBIDASSERRANO.COM

kultura

Ehun lagun baino gehiago daude lanean Urduñan, *La aventura de la Zarzuela* proiektua garatzen. Musika banda bat eta hiru abesbatza batu dira proiektura, beste hainbat norbanakorekin batera.

Zazpi zarzuelaren piezekin osatutako emankizuna taularatzea dute helburu. Urduñako Andra Mari ikastetxean estreinatuko dute lana abenduan, baina Amurrio Antzokian ere eskainiko dute, datorren udaberrian.

Ehun lagun baino gehiago auzolanean, zarzuela bat taularatzea helburu



Entseguetan murgilduta daude orain, abenduan estreinatuko baitute lana. Aiaraldea.eus



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Musika-antzerki genero bat da zarzuela, Espainian sortua. Gazteleraz eginiko operak dirrela esan daiteke: areto handietan egiten dira normalean, goi-mailako aktore eta abeslari profesionalekin.

Urduñan, baina, auzolanean ekin diote mota horretako ikuskizuna prestatzeari. "Zerbait ezberdina egitea genuen helburu", azaldu du Alfredo Ibañez Gómez de la Sernak. Proiektuaren eszena zuzendaria izatea egokitu zaio. Entseguetan murgilduta dago orain, obra taularatzeko batu diren beste hainbat lagunekin batera.

Ez da horrelako abentura batean sartzen diren lehenbiziko aldia. "Duela bospasei urte

Katuska zarzuela taularatu genuen", azaldu du Ibañezek. "Oso harrera ona" izan zuen lan hark, bina emanaldi eskaini zituzten Urduñan eta Amurrión, eta aretoak betetzea lortu zuten bi egunetan. "Jendea asko gustatzen zaio, ohikotasunetik irteten den ikuskizuna delako".

8 zarzuela baten prezioan

Oraingoan, baina, erronka are handiagoa dute esku artean. Ez dira zarzuela bat moldatzera mugatuko. Zortzi obraren zatiak uztartuko dituzte emanaldian: *El caserío*, *La algría de la huerta*, *Gigantes y Cabezudos*, *Luisa Fernanda*, *La Gran vía*, *Marina*, *La taberna del puerto* eta *La leyenda del beso*. "Zatirik ezagun eta komikoak hartu ditugu. Oso ikuskizun anitza izango da, ikusteko arinagoa". Aktore batzuk

Eskualdeko hiru abesbatza daude proiektuan sartuta, Santa Zezilia musika bandarekin batera

arduratuko dira pieza batetik besterako trantsizioak egiteaz, obren inguruko komentario eta elkarrizketak josiz.

Lau elkarte batu dira egitasmoa aurrera ateratzeko: musika banda bat -Santa Zezilia eta hiru abesbatza -Urduñakoa, Orozkoko San Ageda eta Laudioko Andere-. Norbanako ugari ere murgildu dira proiektuan, 100 lagun baino gehiago. Horietatik 42 aktore lanetan arituko dira oholta gainean.

Astean bitan batzen dira obra prestatzeko. "Egunetako batean orkestra gabe aritzen gara eta bestean musikariek", azaldu du Ibañezek, "orain arte zatika entseatu dugu eta segituan hasiko gara zazpi piezak batera entseatzeko". Eszena zuzendariak nabarmendu du "lan handia" egin dutela, "antzerkia eta musika uztartu" behar izan dituztelako.

Urduñan eta Amurrión

Lotuta dituzte dagoeneko emanaldiak. Urduñan eskainiko dute obra lehenbizikoz, abenduaren 16 eta 17an. Andra Mari Ikastetxeko aretoan taularatuko dute, 19:30ean lehen egunean eta 18:00etan bigarrenegun.

Hiru euro balioko dute sarrekek, eta Alondegian eskuratu ahalko dira, eraikin horretako ohiko ordutegian. "Egunean bertan ere egongo da sarrerak eskuratzeko tokia", zehaztu du Ibañezek, baina ohartarazi du agian ez dela tiketik geratuko. Duela sei urte izan zuten arrakasta eta inplikaturik dagoen jende kopurua ikusita, oso posiblea da hori.

Amurrio Antzokian ere bi emanaldi eskainiko dituzte udaberrian, apirilaren 14 eta 15an, zehazteke dute oraindik ordutegia.

Aiaraldeko sortzaileen plaza izango da Durangoko Azoka



Landako gunea izango da azokaren epizentroa. Durangoko Udala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Abenduaren 6tik 10era ospatuko da Durangoko Azokaren 52. edizioa. 400 nobedade eta 200 kultur ekitaldi baino gehiago egongo dira Landako gunean. Tartean egongo dira Aiaraldeko hainbat sortzaile ere, euren azken lanak aurkezten.

Yogurinha Borovak disko berria plazaratuko du azokan: *Amarri*. Euskaraz eginiko abestien bilduma bat izango da. Abenduaren 6an aurkeztuko du artista audioarrak lana, 18:00etan Aho-tsenean.

Mr. Pongo Band-eko kideak ere diskoa labetik atera berri berrataratuko dira Durangora. Iker Arana gitarrista urduñarraren taldea larunbatean -abenduaren 9an- izango da Ahotseneako oholtzara, 19:40ean.

Igor Arzuagak, bere aldetik, *Nire begiak* diskoa aurkeztuko du, gune berean. Abenduaren 8an izango da zita, 12:20ean.

Alabaina, musikari aretarra ez da pianoa jotzera mugatuko, *Takoidun zapata gorria* antzezlanaren taularatuko baitu Szenatokia gunean; Haizea Paris, Jabi de la Ydalga eta Mikel Ayllonekin batera. Pablo Ibarluzearen zuzendaritzapean egin dute lana, eta larunbatean aurkeztuko dute. Lau saio eskainiko dituzte: 13:30ean, 16:00etan, 18:30ean eta 19:00etan.

Bideojokoen k@bia

Urtzi Odriozola, aldiz, K@bia gunean egongo da, Gamerauntzia proiektuaren nondik norakoak azaltzen. Bideo-joko zaleen euskarazko komunitatea eratzea da egitasmoaren xedea.

Anuntzi Arana idazle aiarrarra

ere liburu argitaratu berri batekin iritsiko da azokara: *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak*. 1985. urtean plazaratu zuen antropologo aiaraldearrak liburu hori, baina orduko edizioa agortua dagoenez, berria atondu dute.

Aletxu Zobaran preso politikorik urduñarraren lanak ere eskuratu ahal dira azokan, Ataramiñe argitaletxearen postuan.

Durangora gerturatzeko autobusa aterako da eskualdetik abenduaren 7an, ostegunetik. Hiru geldialdi egingo ditu garraioak: 16:00etan abiatuko da Urduñatik, eta 16:15ean zein 16:30ean hartuko ditu Amurrio eta Audioiko bidaiariak, hurrenez hurren.

Bi autobus egongo dira itzultzeko: 21:00etan eta 2:30ean. Tikitak 7 euroren truke eskuratu daitezke hiru herrietako udaletxeetan. Abenduaren 5a izango da horretarako azken eguna.

Disko berria plazaratu du Amakomun taldeak



Taldeko gitarrista eta abeslaria, kontzertu batean. Alberto Villar

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Mundo animal izango da Amakomun talde audioarraren lan berriaren izenburua. Berriki zabaldu dute diskoaren lehen abestia: *En la ignorancia*.

Zortzi kanta eta bi "bonus-track" izango ditu maketak. Tal-

dearen entsegu lokalean grabatu dituzte hamar abestiak. "Disko autokoiztua izan da erabat", adierazi dute kideek.

Hala ere, adierazi dute ez dakitela euren lehen edo bigarren lana den: "Amakomun gisa beste maketa bat grabatu genuen duela zenbait urte, baina ez genuen inoiz argitaratu".

Tolo

Restaurant

Arratsaldetan
hotzari ihes egiteko,
zatoz gure espazio
klimatizatu berria
ezagutzera.
Girorik onena
Laudioko erdialdean

Ordutegia:
17.30-22.00

Zatoz eta kontsultatu
abenduaren 25erako eta
urtarrilaren 1erako zein
6rako prestatu ditugun
menu bereziak.

Aldai enparantza,
LAUDIO
672 23 50 65
www.tolobar.com

ad!grafik

OPARI

PERTSONALIZATUAK



Katilua



Kamiseta




Kuadroa



Puzzlea

Kirola



“Benetan maite dut egiten dudana, baina heldu da agur esateko ordua”

KAZETARIA ETA KIROL ESATARIA DA **RAFA MUNTION** (Orozko, 1957). 30 URTE BAINO GEHIAGO DARAMATZA BASKONIA SASKIBALOI TALDEAREN PARTIDAK ETA ISTORIOAK IRRATIAN KONTATZEN.



Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Nola hasi zinen kirol esatari lanetan?

Kazetaritza ikasketak bukatu eta Radio Vitorian lan egiteko aukera sortu zitzaidan. Hasieran Alavesen futbol partidak jarraitzen nituen. Saskibaloia atalean postu bat libre geratu zen orduan, eta niri eskaini zidaten. Ez zen erraza duela 30 urte baino gehiago saskibaloia jarraitzea, baina gutxika jendea ezagutzuz joan nintzen eta gero eta gustu gehiago hartzen joan nintzaion.

1990ean Iñaki Garaialde Baskoniako jokalaria ohia hasi zen nirekin batera partidak komentatzen. Orduetik, elkarrekin egin dugu bide hau. Jende gehiagorekin lan egin badut ere, uste dut ezin dela nire ibilbide profesionala ulertu Iñakiren laguntzarik gabe.

Saskibaloi talde bakar baten istorioak kontatzen dituzu?

Bai, Baskonia taldea jarraitu dut bakarrik. Radio Vitorian lan eginda, logikoki, tokiko taldearekin joan gara beti. Urtean 80 partida inguru jarraitzen ditut eta klubarekin batera bidaiatzen dut. Taldearen bilakaera oso gertutik bizi izan dut. Saskibaloia emititzen hasi nintzen garaian, Josean Kerejetak hartu zuen klubeko zuzendaritza eta fitxaketa erabakigarri batzuk egin zituen. 90eko hamarkadan taldea haziz joan zen, Europako postuetan sartzea lortu zuen taldeak Manel Comas entrenatzaile zela. Gaur egun ezagutzen dugun kluba bilakatu arteko garapena ikusi eta bizitzeko zortea izan dut.

Taldea hain gertutik jarraitu izanak lotura berezirik sortu dizu?

Zalantzarik gabe, bai. Pentsa taldearekin bidaiatzen

dugula eta taldearekin hartzen dugula ostatu, ia eguneko 24 orduak pasatzen ditugu elkarrekin.

Lehen errazagoa zen harreman horiek estutzea bidaiatzea zailagoa zelako, kirolariak ez zutelako medioen presio guzti hori sentitzen... Egun, gauzak hoztu dituzte “charter” bidaiak jartzen dituzten erraztasunek eta kirolarien muturreko profesionalizazioak. Hala ere, ni saiatzen naiz konfiantza sortzen taldekideekin, eta lortu ere lortzen dut. Oso lagun onak egin ditut, bai lehen, baina baita orain ere.

Nolako da kirol esatari lana?

Partidarik ez dagoen bitartean nahiko sinplea da, elkarriketa batzuk prestatu, prentsurrekoetara joan...

Taldearekin bidaiatzeko garaia heltzen denean hasten da benetan zirrargarria dena. Imajinatu: 80 partida jokatzeko dituzte urtean, astero bi batzaz beste. Batetik bestera darabilgun erritmoa ikaragarria da. Hegaldia hartu, elkarriketa batzuk egin, partidako protagonistekin bildu, emititu, maletak egin eta berriz ere hurrengo partidarako prestatzen hasi.

Zenbateraino aldatu da ogibidea azken 30 urteetan?

Asko aldatu da, faktore ugari daude tarteko. Asko aurreratu da irratia emisioak egiteko teknologia. Gaur egun edonondik egin daitezke zuzeneko konexioak, kalitate onean gainera. Telebistak ere eragina izan du, emisioak etxetik edo bulegotik egiteko aukera eskaintzen du, taldearekin desplazatzeko beharrik gabe. Gero eta kazetari gutxiago mugitzen gara saskibaloi taldeekin. Nik argi daukat: ez dago zuzenean jarraitzea bezalakorik. Azalean sentitzen dituzu partidak sortzen dituen emozio guztiak, Atenaseko Panathinaikosen partida batean egotea izugarria da oso. Baina, hala ere, gaur egun ACB ligan hiru kazetarik bakarrik jarraitzen ditugu talderen baten par-

tida guztiak. Barça edo Madril bezalako talde handiek ez dute kazetaririk eurekin.

Baskoniarekin egindako bidaiak guzti horiek hamai-ka anekdota utziko zizkizuten.

Zenbatu ezinak dira anekdotak eta bizipenak. Bidaiak guztiak dira zirrargarriak. Velimir Perasovicekin Serbia eta Kroaziara egindako bidaiak, esaterako, nahiko hunkigarriak ziren. Manel Comas entrenatzaile zuzeneko garaiak ziren, Balkanetako gerla bukatu berri. Perasovic kroaziarra izanik baginen bere kontra egin zitekeen ekintzaren baten beldur, baina umorez hartzen genituen horrelako egoerak ere.

Baskoniarekin egindako lehenengo “charter” bidaiak ere nahiko gorabeheratsua izan zen. Helizedun hegazkin zahar batean egin genuen. Mazedoniara joan beharra geneukan; hegazkinak bidaiak jarraian egin ez, eta tarteka depositua betetzera gelditu beharra genuen. Italia zeharkatzen ari ginela egundoko ekaitzaldi batean murgildu ginen. Ikara pasa genuen benetan, jokalaria askok partida bertan behera uztea proposatu zuten. Azkenean Mazedoniara heldu eta partida irabazi genuen, baina geroztik ez dut oso eroso hartu hegazkinik.

Eta orain, agur esateko ordua heldu da?

Agur esateko ordua da, bai. Ez dakit ordea noiz arte luzatuko dudana agurra. Txanda-kontratua eskaini didate erretiroa hartu aurretik, eta hartu egingo dut. Ez dakit hurrengo urteetan bi hilabeteko lanaldia beteko dudana edo azken denboraldi batean, hots, bederatzi hilabete. Penaz, egiten dudana benetan maite dudalako, baina agur esateko ordua heldu da. Atzetik datozen gazteei aukerak eskaini eta ni neu proiektu berrietan murgiltzeko unea da. Garaia da euskara ikasteko adibidez, egiteko daukadan zerbait da.

MENDI LASTERKETAK

Kirola eta elkartasuna uztartuz, bi proba egingo ditu "Spiderabelek"



Spidermanen jantzia soinean duela egiten ditu Abel Fernandezek lasterketa asko. A.F

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurrioko Abel Fernandez "Spiderabel" korrikalaria Montes Solidarios ekimeneko kidea da. Elkarrekin dibertsitate funtzionala duten pertsonen bidez, mendi jarduerak antolatzen ditu, mugarik existitzen ez dela erakustea helburu.

Abenduaren 10ean Malagan izango da "Spiderabel". Bertan, bere 59. maratoian parte hartuko du. Ez du, ordea, lasterketa bakarrik egingo, Rafa Ledesmarekin batera egingo du korrika. Ledesma itsua da eta elkarri lotu-

tako lokarri baten bidez arituko dira lasterka.

Apustu jolasa

Elkartasun ekimen hori inguruko artean zabaltzeko apustu jolasa abiatu du Abel Fernandezek. Malagako maratokia osatzeko denboraren barnean bete beharko du eronka. Apustu bakoitzak 1,5€ balioko du eta eskualdeko hainbat tabernatan egin ahalko da: Laudioko Azokan; Urduñako Mugalde eta Sortetxan; eta Amurrioko Txokogorri, Cola de Gallo, Toki Eder, Guk, Txotis zein Arkune tabernetan, eta Ayala ostatuan.

Malagako maratokiaz gain beste elkartasun ekimen bat prestatuko du Fernandezek "Montes Solidarios" elkarrekin batera abenduaren 24rako. Ekimen hau urtero antolatzen den Babiora igotzeko txangoa izango da. Bertan, aniztasun funtzionala duten hiru pertsona lagunduko dituzte mendiko tontorrera. Ibilaldia 10:00etan abiatuko da Amurrioko Juan de Urrutia plazatik. Babion daudela argazki herrikoia aterako dute Olenzterorekin batera, eta txokolata prestatuko dute gero Juan Urrutia plazan, martxa herrira itzultzen denerako.

TXIRRINDULARITZA

Luisa Ibarrola Munduko Kopan lehiatzeko prest



23 urte azpikoen kategorian liderra da Ibarrola. Iñaki Gonzalez de Heredia

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Luisa Ibarrola txirrindulari saratxoarrak garaipena erdietsi zuen igandean Lezamako zirkulosean. Junior mailan lehiatu arren, markarik onena lortu zuen eta alde nabarmena aterazio elite mailako lehen sailka-

tuari. Sub-23 kategoriako sailkapenean burua da, nahiz eta adinagatik juniorra izan.

Valentzian ospatuko da Espainiako Koparen azken froga, datorren abenduaren 17an. Ibarrolak, ordea, ez du bertan parte hartuko, Belgikako Namur hirian arituko baita Munduko Kopan lehiatzen.

 **elkarlan**
asesores

euskaraz bizi

Aseguru bat
pertsona
bakoitzarentzat



Aholkularitza:
Lanekoa,
Fiskala,
Juridikoa eta
Kontabilitatekoa



Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

www.elkarlan.eu

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

Ametsak egi bihurtzen ditugu

ERRESERBAK
Enpresentzak,
saltokientzat,
elkarrekin...
Gabonetako zozketa

Laudio ▶ ZUMALAKARREGI, 3 ANBULATORIO ONDOAN T. 94 672 04 93 / 652 77 81 37 www.lacasaderesa.com

kirola

STRAVA APLIKAZIOA

Eskualdeko biderik erabiliak ekarri dituzte argitara mapa batean



Eskualdeko bide erabiliak zeintzuk diren ikusi daiteke aplikazioaren bidez. **Strava**



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Kirol jarduerak jasotzen dituen aplikazioa da Strava. Urte gutxian milioika erabiltzailek deskargatu dute programa, eta Aiaraldeko kirolariek ere bete-betean egin dute bat mundu mailako fenomeno bilakatu den tresna honekin.

Bizikletaz, korrika, oinez, igerian... orotariko ibilbideak erregistratzen dira Stravan. Guztira 31 kiroletako markak elkarbanatu daitezke, bitxiaren artean yoga edo eskia daudelarik.

Kirolariei, ibilbide berriak ezagutu, distantziak alderatu edota elkarren artean denborak konparatzeko aukera eskaintzen die mugikor aplikazio honek. Era berean, sare sozial formatuan, kirolarien arteko harremana estutzeko tresna da Strava. Jatorriari dagokionez, 2009an sortu zen eta 8 urteko ibilbidean milioika lagunek baliatu dute euren kirol jardueraren berri emateko.

Urduñako eta Barrerillako mendateak dira txirrindulari gehien erregistratu dituzten errepideak

Eskualdean ere ehunka kirolaririk erabili dute lanabesa. Enpresak "bero-mapa" interaktibo bat kaleratu du mundu mailan erregistratutako ibilbide guztiak erakutsiz. Aiaraldean ere Strava fenomeno nabaria da, eskualdeko hamaika bide eta errepide agertzen baitira erregistratuta.

Programan ikus daitekeenez, Urduñako errepideka dira txirrindularien gogokoenak. Izan ere, Urduñako portua eta Barrerillako mendateak dira bizikleta jarduerara gehien erregistratu dituzten errepideak. Korrikalariarentzako aldiz, Ellakuriko atletismo zelaia da kirola praktikatzekeko lekurik kuttunenatarikoa. Hori adierazten dute, behintzat, Stravaren mapako argiguneez.

Nerbioiko Parke linealean

Nerbioiko Parke Linealak ere jarduera ugari pilatu ditu, bereziki oinezko eta korrikalarien artean. Mendiei dagokionez, Stravako datuen arabera Txarlazo da eskualdeko iogoera gehien jaso dituen gailurra.

KROSA

Berdintasunaren alde egingo dute korrika Amurrion



Seigarren urtez ospatuko dute Amurrioko Herri Krosa. Abenduaren 16an izango da zita. Lasterketa nagusia 16:15ean abiatuko da Juan De Urrutia plazatik. 8 kilometroko luzera izango du eta iazko ibilbide berdina jarraituko du, herri barrutian garatuko da bere osotasunean.

16 urtetik beherakoentzat ere hainbat froga antolatuko dituzte. 17:05ean bost urte azpiko haurrak 500 metroko lasterketa batean aritu ahalko dira. 17:20ean bost eta bederatzire bitarteko kilometro bateko lasterketa abiatuko da. Azkenik, 10-15 urte bitarteko gazteak 1,5 kilometroko lasterketa izango dute, 17:30ean abiatuko dena.

BORROKA

Garmendia eta Aramendi garaile Zarautzeko K-1 torneoan



Aratz Garmendia izan zen garailea Zarautzen jokaturako K-1 torneoan. Ez zegoen aurreikusita Garmendiak lehiaren parte hartzea, baina beste borrokalari batek kale egin zuen eta berak hartu zuen lekua. Lehenengo arerioa, gainera, beste airdalder bat izan zen; Julen Aldama, Cape Team-ekoa.

Eneko Aramendi ere neurtu zen Zarautzen, kartelean bere borroka iragarrita ez bazegoen ere. Orozkoarrak 1. roundean KO teknikoaz gainditu zuen arerioa.

Azkenengoz, Asier Ispizua laudioarra Jaime Urdanpileta lagun eta etxeko kirolariaren kontra lehiatu zen. Puntuen bitartez erabaki zuten epaileek zarautzarrari ematea garaipena.

MENDIA

San Pedro mendira igoko da Saratxoko XV. mendi martxa



San Pedro mendiko lubakietatik igaroko da martxa. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Abenduaren 3an egingo dute Saratxoko XV. mendi martxa. 8:30ean abiatuko da ibilaldia Saratxoko plazatik eta Lekamaña igarota Lezama aldera joko du, San Pedro mendira igoz. 15 kilometroko ibilbidea izango da.

Parte hartzeke izen emate epea zeharkaldia hasi baino ordubete lehenago zabalduko dute herriko plazan. 3 euro balioko ditu inskripzioak, baina adin txiki-koek ez dute ordaindu behar. Txangoa bukatzerakoan San Pedro mendiko lubakien inguruko hitzaldi bat eskainiko dute Saratxoko eskolan.

Herriko plaza

Bidali zure zorion mezua agurrak@aiaraldea.eus helbidera urriak 28a baino lehen



Eztizen

Zorionak Eztizen! Jarraitu zure irribarrearekin bazterrak alaitzen! Muxu potolo bat eta tirakada luzea belarritik!

Lagunak



Josu

Errekako piztien partez, gora metralleta!

Lagunak



Izar

Lanean, mendian, parrandan edo bertsotan, segi horrela urte askotan! Zorionak Izar!



Saioa / Ander

Zorionak Saioa eta Ander! 6 urte elkarrekin urtebetetzea ospatzen jada. Zorionsu izan bikote!

Osaba eta izeko



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera abenduaren 8a baino lehen.

Denborapasak

	Prestuaren nolakotasun	Arnas ezak hil	Zati bikiak	Su armetako katuak
	Gaixotutak	Putzu	Urnietakoa	
	IZENA		Naizen honek	
	Arras, erabat		Euskal fonema	
Gipuzkoako udalerrria	Zezen zikiratua	Bularreko		
DEITURA	Estatubatuarrak	Bokal biribila		
			Merkatua, azoka	
			Gipuzkoako udalerrria	
Italiako telebista		Titanioa	Tik... erlojuaren hotsa	
Kanadakoak		Dauka	Kontsonantea	
				Ozta
Uribe Kosta	Sarri, maiz		Kontsonantea	500
Intsektu mota	Ez eme		Bokala	Kontsonante bustia
		Ardo urdun		
		Bokala		
Saski handia			Erne!	

❖ Judoka amurriarra

ERRAZA

		2	4				
8	5	9	3				6
	2	9	5	6	7	8	4
4	5					7	1
		6	4			5	3
	3	2	1	6	4	8	9
		4	8	3	5		9
	8	7		4	1		5
		3		2	9	6	4
						8	

			7	4	6	8	
		2	8	9		4	3
8	6	1				2	7
4							
6			3	4		5	7
				2		4	
7	9				1		
		5	4	9		3	
			3		8		

ZAILA

		9					
2	8			9	3		1
3			5				6
5				7		4	8
							3
7				1			
		8					
6			7	8	1		9
	2				9	6	

	3	6					
			8	7			
	6		1			5	4
				8			
	2			6			1
4			7		2		
7		8					
	9			5		3	
6	1	9					2

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Eskelak



Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean nahi duzun eskela edo agur mezua.

Urteurrenak
Oroigarriak
Esker-onak
Eskelak

Informatu eskelak@aiaraldea.eus-en

Zozketa

ASTOBIZA TXAKOLINDEGIKO 6 MAGNUM BOTILA!



6 pertsona izango dira saridunak!

Aiaraldea hedabideak Astobiza upategiko 6 Magnum botila zozketatuko ditu erabiltzaileen artean. **Zozketa data: abenduaren 1ean, 12:00etan.** www.aiaraldea.eus web atarian.

FUNERARIA
L A R R A Z
EHORZTETXEA

Aiaraldea txiki

MotroiLoa

Pertsonak alde batera utzita, zenbat animalia ikusten dituzu irudi honetan? **13**



Emaitzak

Pertsonak alde batera utzita, zenbat animalia ikusten dituzu irudi honetan? **13**

MotroiLoa

Kirroldegian

Haurak ibara, zati haieketik beturik ez dagoako Kirroldegiko irudien Zentzuek dira?

Harta iburuetako ki partekin dauka bertan. Irudien aldiak?

Eta pingaino?

DOMINO ZATIA

Fitxetako espazio zuriak domino zati hau zuzena izan dadin.

Blue circle	Green holly	Red apple	Red apple	Yellow star	Yellow star
Green arrow	Green holly	Green holly	White hat	White hat	Green arrow
Green arrow	White space	White space	White space	White space	White space
Yellow star	Yellow star	Blue circle	Blue circle	Red apple	Red apple

Kiroldegian




Itxurak itxura, zati haueetatik batzuk ez dagozkio kiroldegiko irudiari. Zeintzuk dira?



Hartz itxurako bi panpin daude bertan. Ikusten al dituzu? Eta pinguinoa?

DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.



Bete itzazu fitxetako esp.



Kontra

Mundutik Aiaraldeara

Rodrigo Soldon

Maria Leticia López Britez

JAIOTERRIA
PARAGUAY (1993)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
LANA



PARAGUAY



DESKRIBAPENA

Brasil, Bolibia eta Argentina artean kokatua dago. Espainiaren kolonia izan zen XIX. mendera arte. Prozesu luzea izan zen herrialdearen independentziarena, gerra eta errebolta ugari egon baitziren tartean. XX. mendean estatu kolpe eta diktadura ugari bizi izan zituen herrialdeak.

AZALERA

407.758 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

7 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Gaztelera eta guarania.

BITXIKERIAK

Biztanleriaren gehiengoak 30 urte baino gutxiago ditu.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

“Ezin dugu herrialde bat pertsona bakarraren arabera baloratu”

Urteak daramatzazu Euskal Herrian bizitzen. Zer dela eta etorri zinen?

Lan egiteko helburuarekin etorri nintzen, nire neba Bilbon zegoen eta. Zerbait ezberdina egin nahi nuen. Adinez nagusi bilakatzean, pasaportea oparitu zidaten. Bilbon hiru urte egon nintzen bizitzen eta lanean, pertsona edade-
tuak zaintzen.

Nebak Nerbioiko okindegian egiten zuenez lan, tren orduetgia ez zetorkion ondo, 22:30etik 01:00ak arte tarte handia baitzegoen. Bere nagusiak Laudiora etortzeko aukera eskaini zion eta horrela iritsi ginen Laudiora nire neba, haren emaztea eta ni. Guztira, lau urte daramatzat hemen.

Zer da zuretzat Paraguay?

Nire jatorria. Han dago nire bizitza eta familia. Ni ez naiz euskalduna sentitzen, argi dut nondik natorren. Nire sendia eta janaria bo-

tatzen ditut faltan, batez ere. Hemen bizitza gehiena leku itxietan egiten duzue: etxea, bulegoa... Gure herrialdean dena egiten dugu kalean: sukaldu, lan... Gauza guztiak konpartitzen ditugu bizilagunekin. Teknologia ere eragina du horretan, jakina. Paraguayn autobus bat hartzeko kilometro asko egin behar dituzu, uraren bila baldeekin joan behar duzu... Niri herrialde garatuagoa izatea gustatuko litzaidake, baina jendea ez dago oraindik prest.

Eta Euskal Herria?

Asko gustatzen zaidan tokia. Egia esan, ohitzen hasia naiz. Hemen go-jendea atsegin dut, nahiz eta denetarikoa dagoen. Familiari askotan esan diot: hemen bizitzen ari naizena ez nuke hara joateagatik aldatuko. Gaztea naiz eta hemen han baino aukera gehiago ditudala uste dut.

Momentuz Derrigorrezko Biga-

rren Hezkuntza egiten ari naiz, eta ondoren graduondoko bati heldu nahiko nioke.

Zer du gazte batek hemen, han ez duenik?

Zaintzarekiko askatasuna. Paraguay askoz matxistagoa da. Nik ez nuen aita apenas ikusten, beti baitzegoen lanean, igande goizetan bakarrik ikusten genuen elkar.

Seme-alabak oso goiz edukitzen dituzte han, eta zaintza alaba helduenarengan geratzen da. Eskoletan ez da sexualitatea lantzen; eta, beraz, oso gazte izaten dira guraso. Abortatzea ilegala da han. Hortaz, batez beste 15 urterekin da jendea guraso. Nire ahizpak 22 urte ditu, eta bi seme. Lehen haurra 15 urterekin eduki zuen.

Elikaduran ere alde nabarmena dago, aipatu duzunez.

Bai. Guk artoa asko erabiltzen dugu. Indabak, haragia... ere bai.

Hori bai, bertako janari tipikoek “yuca” asko du.

Etorkizunari begira, zer egitea gustatuko litzazuke?

Hasierangozogle izan nahinuen, baina hemen zaintzaile lanak egin ditut eta pertsonak asko baloratzen ikasi dut.

Nola ikusten duzu zaintza, lan ikuspegitik?

Ondo, baldin eta konexioa badago bi pertsonen artean. Astelehenetik ostiralera balitz, lan baldintza ego-kiak dituela esango nuke. Hainbeste ordu etxe barruan ematea ez da inorentzat ona, ez edate uentzat eta ezta langileentzat ere.

Zer egin liteke kultur artekotasuna sustatzeko?

Elkar ezagutzeko espazioak sortzea da egin dezakegun onena. Ezin dugu herrialde bat pertsona bakarraren arabera baloratu.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

